



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Herri Administrazioetan Hizkuntza
Normalizatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Normalización Lingüística de
las Administraciones Públicas

Nieves Martínez de Antoñana Blanco
Araubide Juridikoaren zuzendaria
Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia
Lehendakaritza

Andre hori,

Kultu aretoei buruzko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan martxoaren 10ean, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Kultu aretoei buruzko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Espainiako Konstituzioaren 16.1 artikulua gizabanakoen eta giza taldeen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna bermatzen du, eta beraien agerpenetan muga bat baino ez dago, legeak babesten duen ordena publikoa jagotea. Eta 81.1 artikulua arabera, askatasun publikoen eta oinarrizko eskubideen garapena lege organiko bidez egingo da.

Horrela, uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoak erlijio askatasuna arautu zuen, eta 2.2 artikuluari jarraiki, erlijio askatasunerako eskubideak barne hartzen du erlijio xedeetarako kultu edo biltze guneak erlijio xedeetarako ezartzeko eskubidea.

Euskal Autonomia Erkidegoko arudiari dagokionez, Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak dio euskal herri aginteek, haien eskumenen

esparruan, herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dutela (9.2.a artikulua). Halaber, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendu, hirigintza eta etxebizitza gaietan (10.31 artikulua).

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 54.2.e) artikuluan adierazten denez, sistema orokorren zuzkidura-sareak gutxienez izango dituen erreserben artean daude ekipamendu kolektibo pribatuak, esaterako erlijiosoak. Orobat, 57.2.e) artikulua arabera tokiko sistemen zuzkidura-sareak izango dituen elementuen artean daude ekipamendu pribatuak, adibidez erlijio erabilerarakoak.

Bestalde, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 3.2 artikulua dio arauaren eragin eremutik kanpo daudela ospakizun erlijiosoak.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatu zituen, eta gerora Lehendakariaren martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuak eta Lehendakariaren abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuak aldatu zuten. Bada, Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretu horren arabera, Jaurlaritzaren Lehendakariari dagokion jardun-arloa da *Giza Eskubideen sustapena* (4.1.k artikulua).

Apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuak Lehendakariatzako egitura organikoa eta funtzionala ezarri zituen, eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari esleitu zizkion egitekoen artean dago *Giza duintasunean eta Giza Eskubideekiko konpromisoan oinarritutako bakearen eta elkarbizitzaren kultura sustatzeko sailen arteko estrategia bat diseinatu eta zuzentzea* (19.a artikulua).

Arau horiek guztiak aintzat hartuta, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez kultu aretoak arautuko dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

Lege Aurreproiektuko xedapen orokorren artean, 1. artikuluan xedea ezartzen da, hiri-antolamenduko planetan erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektiboetara bideratutako lurzoruak erreserbatzen direla bermatzea, eta kulturako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko baldintza tekniko eta materialak zehaztea. Jarraian, 2. artikuluan printzipioak eta eskubideak zehazten dira, 3. artikuluan aplikazio-eremua, eta 4. artikuluan kultu-aretoen definizioa dago.

Ondoren, Lehenengo Kapituluak “Kultu-askatasuna hirigintza-antolamenduaren esparruan” du izenburu (5-6 artikulua); Bigarren Kapituluak “Kultu-aretoak (eta beste erlijio-gune batzuk) irekitzeko udal eta hirigintza lizentzia” (7-10 artikulua); Hirugarren Kapituluak “Hirigintza-lizentziak eta beste baimen batzuk” (11-12 artikulua); Laugarren Kapituluak “Administrazio-, irekiera- eta hirigintza-prozedurari buruzko xedapen orokorrak” (13. artikulua); eta Bosgarren Kapituluak “Erljio-erakundeen parte-hartzea erlijio- eta kultu-lekuak zehazteko prozeduretan” (14. artikulua). Azkenik hiru xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor eta bi azken xedapen daude.

Beraz, aipatutako Lege Aurreproiektua aztertuta, euskararen erabileraren gaineko eraginik ez duela izango adierazten dut.

Edozein kasutan, kontuan izanik Lege Aurreproiektuan jasotakoa betetzean pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak harremanak izango dituztela herri administrazioekin, hauek bermatu beharko dute Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek herritarrei aitortzen dizkieten euskara eta gaztelania ahoz nahiz idatziz erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2016ko martxoaren 16an

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria